

ASTEARTEA

2022/05/24

10. urtea, 1.605. zenbakia

107,6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85 €

Kezkaz hartu dute Gamesako langileek Siemensen iragarpena

Gamesatik falta zaion zatia erosteko asmoa adierazi du Siemens Energyk eta aitortu du aldaketak egingo dituztela lantaldean; langileek ez dute baztertzen mobilizazioak deitzea // 2

Herrian bizitzeko aukera «bermatu» nahi die udalak tolosarrei

Tolosako udal gobernuak etxebizitza aukerak handitzea dela lehentasuna esan du; etxebizitza hutsak birgaitu, merkaturatu edota alokairuan jartzea izango da, besteak beste, helburua // 3

Joseba Roteta izango da Tolosa CF-ren entrenatzaile berria // 6

Kortazar eta Larruzea izan dira azkarrenak Txindokiko gailurrean // 7



TOLOSA FESTA HARAGIAREN BUELTAN

Haragi ekimena izan da asteburuan Tolosan, eta jende ugari gerturatu da Triangulora edota Zumarditxikira jatekoaz eta musikaz gozatzera; arraskatatsua izan dela eta gustura daude topaketaren bultzatzaileak // 4

IMANOL GARCIA LANDA



BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE ITXIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!

 **175.476€-tik hasita**

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

Siemensen iragarpenak kezka eragin die Asteasuko langileei

Gamesatik falta zaion zatia erosita, «egiturazko optimizazioa» egin nahi duela esan du Siemensek; langileek balizko lekualdaketa egon daitekeela uste dute

Erredakzioa Asteasu

Siemens Energyk igandean iragarri zuen ofizialki Siemens Gamesatik falta zaion zatia erosteko eskaintza publikoa egiteko asmoa. Akzioa 18,05 euro eskainiko ditu, eta orotara, 4.000 milioi euro ordaindu Siemens Gamesa burtsatik ateratzeko. Cristian Bruch Siemens Energyko kontseilari ordezkariak aitortu du aldaketak egingo dituela Gamesaren lantaldean: «helburua egiturazko optimizazioa da».

Siemens Gamesak bost lantoki ditu Euskal Herrian, horietako bat da Asteasukoa —lehengo Echesa—, eta Tolosaldeko langileen artean kezka zabalduta. Langileen ordezkaria den Josu Zubillagak esan du ez dutela informazio ofizialik jaso eta komunikabideen bidez jakin zutela albiste igandean. Deslokalizazioa egon daiteke atzean eta horren aurrean langileak babesgabe daudela esan du. «Kezkatuta gaude. Duela urte batzuk lantokia bertakoa izanda, bazegoen inguruarekiko atxikipen sentimendua, baina alemaniar baten zatitza ez dago atxikimendurik. Gure planta beste toki batera eramatea bururatzen bazaio, babesgabe gaude, eta kezka handia da. Erabakiak geroz eta urrutiago



Asteasun Siemens-Gamesak duen lantegian 200 langile aritzen dira. J.M.

hartu, geroz eta eragiteko ahalmen gutxiago dugu».

Asteasuko lantokian 200 bat pertsonak egiten dute lan, gehienak eskualdekoak bertakoak, eta gogoan dute duela hilabete inguru Zumaiari izandako albiste. Alemaniako Mutares-ek erosi zuen Zumaiako Siemens Energy-ren lantokia, Guascor zena. «Gure antzeko kasu bat izan dugu duela gutxi. Alemaniako burtsako beste enpresa *putre* bat izatera pasa da, eta hango langileek duten ezinegon bera dugu guk orain».

Zubillagak esan du idatzi bat prestatzen ari direla bildu duten

informazioarekin eta langileen artean banatuko dutela; dena den, ez dute zuzendaritzaren informazio zuzenik jaso oraingoan. «Nahiz eta igandea izan, komunikabideen bidez informazioa jaso bezain pronto, lantokiko kudeatzaileari informazioa eskatu genion, baina ez dugu ez informaziorik ez eta bilera deialdirik jaso —atzora arte—». Ez dute baztertzen mobilizazioak deitzea.

Zubillagak gogoratu du deslokalizazio prozesua ez dela berria. «Duela urte gutxi Echesa enpresa ginen. Tolosaldea inguruko enpresa bat zen eta Gamesak erosi zuen gero. Beranduago Ga-

mesak Zamudion ireki zuen zentro bat eta EAEn oinarriturik zegoen enpresaren erdia baino gehixeago Siemensek erosi zuen. Orduan salatu genuen horrelako deskapitalizazio edo kanporatze bat, euskal gizartearentzat, eta Tolosaldearentzat zehazki, oke-rragorako izango zela; ixteak ekarri ahal zituelako eta bertako inguruko enpresen lanpostuen galera ekarriko zuelako. Hainbat politikok esan zuten ez zela horrelakorik gertatuko, eta erabaki zen Zamudion segituko zuela. Gaur da eguna Siemens Energy izatera pasako omen garela, bagenekien gure etorkizuna Alemaniaren erabakiko zela, eta orain argiago dago».

EUSKO JAURLARITZA

Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapenerako sailburuak esan du enpresen bat-egitea albiste ona dela, baldin eta enpleguari eutsiko bazaio. Operazio horren inguruko informazio argigarria eskatu du, hala ere, egon daitezkeen zantzak uxatzeko. Tapiak uste du Siemens Energyk bere asmoen berri eman ez izanak «ziurgabetasuna» sortu duela, batez ere, langileen artean. Gaineratu du Jaurlaritzak lan egingo duela enpleguari eusteko eta Zamudioko egoitza ez lekualdatzeko.

Ezkeltzuko parke eolikoak lehen tramitea gainditu du

Erredakzioa Zizurkil

Eusko Jaurlaritzak administrazio baimena eman dio Zizurkilgo Ezkeltzuko parke eolikoaren proiektuari, eta horrenbestez, sei hilabeteko epea ireki du haren sustatzaileak, Capital Energyk, planeamenduaren dokumentazio zehatza eta ingurumen-inkaktuaren azterketa aurkez ditzan. Izapide hori formalizatuta, dagoeneko lau dira egoitza Ma-

drilen duen energia berriztagarrien enpresak Gipuzkoan proiektatutako parke eolikoak.

Zizurkil eta Usurbil arteko mugetan, Ezkeltzun, lau aerosorgailu instalatzeko asmoa du Capital Energyk, eta guztira, 18 megawattko potentzia lortzea aurreikusten du.

Ezkeltzukoarekin batera, Karakaten, Soralue eta Elgoibarko mugan, bi aerosorgailu eraikitzeko baimena ere eskatu zuen

enpresak urtarrian, eta orain administrazio baimena lortuta, dokumentazio zehatza aurkeztu beharko du Capital Energyk proiektu honetarako ere. Karakaten 9,6 megawattko potentzia lortzea aurreikusten dute.

Joan den urtearen amaieran, enpresak Trekutz eta Buruzai parke eolikoak eraikitzekeko administrazio-baimena eskatu zuen. Lehenengoa Urretxun eta Antzuola artean dago, eta 10 milioi

euro baino gehiagoko inbertsioa eskatzen du, 12 megawattko potentzia emango duten bi aerosorgailu instalatzeko. Buruzai, bere aldetik, Azkoitia, Urretxu eta Zumarraga artean kokatzen da eta 18 megawatt sortzeko gai diren lau errota aurreikusten ditu enpresak 15,3 milioi euroko aurrekontuarekin. Proiektu horiek lehen fasea gainditu zuten ekitaldi honen hasieran. Fase horretan, alternatibak aurkezteko aldi bat ireki zen, baina ez da halakorik gertatu. Horrela, sei hilabeteko epea ireki dute proiektu horiek bidea egin dezaten eta Capital Energyk dokumentazio zehatzagoa aurkez dezan.

Garbileku plazako argiztapena eta segurtasuna hobetuko dute

Erredakzioa Irura

2022ko aurrekontu parte hartzaileen inguruko prozesuan herritarrek egindako proposamenak jaso ondoren, udaleko bulego teknikoak proiektuen bideragarritasuna aztertu et gero, ebatzi du proiektu bakarrak betetzen dituela baldintza guztiak: Garbileku plazako argiztapena eta segurtasun sarea jaritzeko egitasmoak, alegia. Irurako Udalak lan horiek eramango ditu aurrera 2022. urtean.

Bestalde, Irurako Udalak jakinarazi du komun publikoa jaritzeko lanak atzeratu egingo direla. Hornikuntza arazoak direla medio atzeratu behar izan dute obra. Lizitazioa eginga dagoen arren, udalak aurreikusi du komun publikoa udazkenean jarritzea.

70 familiak eta saltoki txikiek %25 aurreztuko dute argiaren fakturan

Erredakzioa Berrobi

Berrobiko eskolako estalkian 100 plaka fotovoltaiako jarriko dituzte uztailen. Ekisolar enpresa arduratuko da horretaz, eta martxan, elektrizitatea sortzen, irailaren hasieran hasiko dira. Panel horien bidez, David de Miguel alkateak esan duenez, %25 arte aurreztu ahaliko dute 70 etxek eta saltokiek urteko faktura elektrikoan.

Oraingoan, 21 familiak eman dute izena, baina ekainaren 20ra bitarteko epea jarri dute bazkide berrientzat. Ikastetxetik 500 metroko erradioan dauden etxeek eta saltokiek eman ahal izango dute izena. Izena eman nahi dutenek, 150 euro ordaindu beharko dute hasieran; eta ondoren, Tokiko Energia Komunitateko bezero direnek, hilean 7 euro ordainduko dute. Interesa dutenek, *Tekberrobi.eus* webgunea bisitatu dezakete, *info@tekberrobi.eus* helbidera idatzi, edota 946 856 312 zenbakira deitu.

Etxebizitza aukerak handitzea dela lehentasuna dio udalak

Etxebizitza hutsak birgaitu eta alokairuan jartzeko diru laguntzen ordenantza garatu du, eta orain, etxebizitza berrien eraikuntza sustatzen ari dela adierazi du

Josu Artutxa Dorronsoro
Tolosa

Tolosako udal gobernuak etxebizitza eskariari erantzuteko abiatuta dituen lan lerro eta proiektuak aurkeztu ditu. Etxebizitza politika estrategikoa eta lehentasunezkoa dela tolosarren etxebizitza beharrei eta eskaerei erantzuteko esan du Olatz Peon alkateak: «Ezinbestekoa da aukera berriak eskaintzea etxebizitza eskubidea bermatu eta herritarrei erraztasunak emateko».

Alkateak adierazi duenez, «herritar askok» beren kezka, zailtasunak eta beharrak azaldu dizkie udal gobernuari. «Eskaria handia da herrian, eta tolosarrei Tolosan bizitzeko aukera bermatu nahi badiugu, beharrei erantzutea lehentasuna da guretzat», azpimarratu du.

Besteak beste, etxebizitza hutsak birgaitzea, merkaturatzea, eta alokairuan jartzea du helburu udal gobernuak. Horrela, Xabier Balerdi etxebizitza saileko zinegotzi arduradunak, jada abian jarri dituzten lan lerroen berri eman du. Batetik, Tokiko Gobernu Batzordeak Alokabideekin sinatuko duen protokoloa onartu duela esan du. «Informazio saioak eta hitzaldiak egitea aurreikusten dugu, etxebizitza hutsen inguruko programak ezagutzera eramateko eta herritarrek eskura dituzten diru laguntzak gizarteratzeko».

Bestetik, udalak etxebizitza hutsak birgaitzeko diru laguntzak emateko ordenantza garatu du, sinatuko duten protokoloaren osagarri modura; aurrerago egingo dute deialdia. «Etxebizitza hutsak alokairuan jar daitezten sustatzea da helburua», esan du Balerdik. Tolosan 253 etxebizitza daude hutsik. Hori dela eta, etxebizitza hutsen jabeekin lanketa berezia egingo dutela aurreratu du: «Beraiekin hitz egingo dugu, etxebizitzak hutsik izatearen arrazoiak gertutik ezagutu eta alokairuan jartzeko dituzten aukerak aztertze».

Iaz, bereziki gazteei eta behar bereziak dituzten herritarrei zuzendutako diru laguntza lerro berria abiarazi zuen udalak, alo-



Tolosako udal gobernuak kideak hirigintza alorreko lan lerroak eta proiektuak aurkezten. ATARIA

kairuaren ordainketa errazteko. Iazko laguntzak eman ditu dagoeneko; aurtengo deialdiari begira, oinarriak egokitu egingo dituzte. «Izan ere, Eusko Jaurlaritzak Gaztelagun programa, gazteei alokairu ordainketa errazteko programa, egokitu eta zabaltu egin du eta udalaren diru laguntza oinarriekin bat egiten du. Hortaz, baldintzak beraztertutako eta berri egingo dituzte, diru laguntza herritar gehiagorengana zabaltzeko», azaldu du Balerdik.

HIRU GUNE NAGUSI

Hirigintza garapenari dagokionez, herriko eremu ezberdinetan etxebizitza berrien eraikuntza sustatzen ari da udal gobernuak, etxebizitza babestuen parkea handitu asmoz, alokairuaren aldeko apustua eginez. Egoitz Sorozabal hirigintza saileko zinegotzi arduradunak azpimarratu duenez, Larramendi auzoko garapena amaituta, Tolosan garatzeko dauden eremu «ia bakarrak eta handienak» Amaratx eta San Esteban auzoetakoak dira.

Amaratx auzoan, Visesa enpresarekin sinatutako hitzarmen baten bidez, 111 etxebizitza babestu eraikiko dituzte lehen fasean. «Tolosarrek lehentasuna izango dute», esan du Sorozabalek. Bigarren fasean, 185 etxebizitza (81 babestu eta 104 libre) eraikiko dituzte. «Eremuan eraikiko diren etxebizitzak %65 babestua izango da, beraz», gaineratu du.

San Esteban auzoan, bestalde, udalak legealdi hasieran hartutako konpromisoa beteko duela aurreratu du: «Diagnostikoa egingo dugu, lurretan jabetza publikoa zenbatekoa den finkatzeko, eta urbanistikoki kostuak zenbatekoak izango diren ezagutzeko. Hau amaitzean, martxan jarriko da HAPOaren aldaketa, eremuaren garapenari bide emateko».

EREMU BERRIETAN

Iurreamendi auzoa garatzeko asmoa ere badu udalak. Bertan, 141 etxebizitza eraikiko dituzte: 23 babestu, 40 tasatu eta 78 libre. «Udazkenean egingo da babes-tuen deialdia, eta errepartzelazio proiektua egin ostean, etxebizitza berrien eraikuntzagatik udalak jasoko duen aprobetxamendua alokairura bideratzea da udal gobernuaren proposamena. Hortaz, alokairurako 15 etxebizitza babestu eraikiko ditugu bertan», esan du Sorozabalek.

San Kosme eta San Damian eremuan ere 20 etxebizitza tasatu eraikiko ditu udalak, beste 30 etxebizitza librerekin batera. Guztira, beraz, 50 bizitoki sortuko dituzte. Horrez gain, San Frantzisko pasealekuko 37. zenbakian 23 etxebizitza libre eraikitzea aurreikusten dute. «Gauzak ondo bidean, aurten eraikitzen hasteko aukera izango dugu», aitortu du Sorozabalek.

Alde Zaharrean ere promozio desberdinak bideratzen ari da udal gobernuak. Alkateak esan du

«begirune berezia» diotela eremu honi. Oraingoz, 14 etxebizitza eraiki dituzte Kale Nagusiko 19. zenbakian, eta beste 12 eraikitzen ari dira 1 eta 3 zenbakietan. Halaber, Letxuga kaleko 5. zenbakian eta Rondilla kaleko 14. ean, etxebizitza berriak eraikitze baimenak lortu dituzte; beste 20 bizitoki inguru eraikiko dituzte.

Aipatutako hirigintza garapenaz harago, Tolosako eremu desberdinetan etxebizitza berriak eraikitze lanean ari direla adierazi dute udal gobernuak ordezkariak. Batetik, 48 etxebizitza eraikiko dituzte Zubizarreta eremuan (Zumardi Handiaren ondoko aparkalekuan): 16 libre eta 32 babestu. Bestetik, Misericordia Zaharreko eremua garatzeko lanketa abian du udalak. «HAPOaren arabera, 70 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten da, erdiak babestuek», azaldu du Sorozabalek.

Joxe Mari Villanueva udal gobernuak zinegotziak ere nabarmendu du eskaera «apartekoa» dela, eta horri erantzun bat ematea «ezinbestekoa» dela: «869 lagun daude zerrendetan; horietatik 555 Tolosan daude errolatuta, eta ia 200ek, alokairuaren aldeko joera adierazi dute». Amaitzeko, udal teknikari, zinegotzi eta sail desberdinetako langileek egindako lana azpimarratu du, eta borondate osoa azaldu du, «eraikuntza bultzatu eta sustatzeko, baita Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzeko ere».

Agerian geratu da, beste behin, Enirio-Aralarren dagoen zatiketa

Azaldu dutenez, «gezurra» da aldundiaren gabezia estaltzeko, udalek diru ekarpen gehigarria jarri behar izan dutela

Erredakzioa

Enirio-Aralar Mankomunitatea osatzen duten udalerritako indar desberdinen arteko desadostasuna agerian geratu da beste behin. Iragan maiatzaren 10ean mankomunitateko lehendakari Adur Ezenarro, Zaldibiako, Legorretako eta Amezketa ordezkariekin batera, Enirio-Aralar Mankomunitateko azken hiru urteetako balantzea egin zuen. Agerraldi hartan Ezenarro esandakoekin, ordea, ez datoz bat Mankomunitateko beste hainbat ordezkarik. Abaltzisketa, Altzaga, Arama, Beasain, Gaintza, eta Lazkao ordezkariek eta ENBA sindikatuak esan dute Enirio-Aralar Mankomunitatearen izenean hitz egin zutela, baina beraiek Mankomunitatearen zati bat baino ez direla; «Mankomunitatearen izenean hitz egiteko, Mankomunitatearen batzordean hitz egin eta adostu behar da eta lehendakariak, «azken 10 hilabeteetan ez du bilerarik deitu».

Hala, «diru kontuekin egin duten manipulazioa» salatu dute. Azaldu dutenez «gezurra» da Aldundiaren gabezia estaltzeko, udalek diru ekarpen gehigarria jarri behar izan dutela. «Udalok, Goilarre programan parte hartuz, eta aldundiko diru laguntzekin batera efektu biderkatzaile bat lortzeko, diru gehigarri bat jartzea erabaki genuen, eta diru hori, abeltzainekin eta aldundiarekin adostutako lanak egitera bideratuta zegoen».

Gaineratu dutenez Mankomunitateak azken hiru urteetan aldundiaren diru laguntza aukera guztiak galdu ditu. Agerraldia egin duten ordezkariak ez dute ulertzen «Amezketa, Atauneko eta Zaldibiako adibidez, aldundiko diru laguntza programez baliatzea beraiekin mendietan lanak egiteko, eta herri horietako ordezkariak, Mankomunitatean programari uko egitea».

Bada, «itxurakeria» alde batera utzi eta «egunerokoan abeltzainen bizi baldintzen aldeko kudeaketa» eskatu dute.

Musikherriak Tolosako kaleak girotuko ditu

Herriko musika talde eta artistei balioa emateko antolatuko dute ekimenaren zortzigarren edizioa; 20 talde baino gehiagok hartuko du parte

Jon Miranda

Maiatzaren 28an Musikherria ekimenaren zortzigarren edizioa ospatuko dute Tolosan. Herriko hainbat gunetan eta egun osoz eskainiko dira emanaldiak eta dagoeneko 20 talde baino gehiagok baieztatu dute parte hartzea. Inoiz baino parte hartzaile gehiago izango direla nabarmendu du Mikel Iraola antolatzaileak eta tartean lehenengo aldiz parte hartuko dutenak ere izango direla baieztatu du.

Goizean, besteak beste, Larramendi, Amarotz, Izaskun eta San Esteban auzoetan, 10:00etan hasita, emanaldiak eskainiko dituzte Tolosako eta Giro Arte taldeetako dultzaineroek eta Incasables txarangak. Ondoren, 11:00etatik aurrera, kalejiran ibiliko dira hainbat talde: Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasleak, Hauspotuz elkarteko trikitilariak, Udaberri fanfarrea, Udaberri txaranga, Isidro Larrañaga musika eskolako ikasleak, Uztaritzeko Herri So-

nua elkarte, Laskotxaranga eta Tolosako Abeslari Gazteak. Amaia Lizaso Eduardo Mokoroa udal musika eskolako arduradunak azpimarratu duenez ikasleek badute Musikherrian parte hartzeko gogo: «Udaberria eta eguraldi onarekin batera, guztia loratzen ari da eta gu ere kalera aterako gara».

Aurten, Plaza Berrian eta Lopez Mendizabal plazan, eserita entzuteko emanaldiak prestatu dituzte eta udal musika eskolako klarinete taldea, Isidro Larrañaga akordeoi orkestra eta Lask abesbatzak hartuko dute parte Plaza Berrian. Hodeiertz abesbatzak, Garigabeak, The Konbixek eta Garenak, berriz, Lopez Mendizabal plazan emango dute emanaldia.

BAZKARIRAKO TXARTELAK

Osasun egoerak baimentzen duenez, Zerkausan egiten zuten herri bazkaria berreskuratu dute antolatzaileek. Musikariak eta musikari ez diren gainerako herriarrak ere gonbidatuta daude-

la esan du Iraolak eta gogoratu du Laskorain ikastolak prestatu eta helburu solidarioa izango duela bazkariak. Irabaziak Zutani elkartearentzat izango dira. Txartelak egunotan salgai daude Xirimiri eta Orbela tabernetan, 12 euroan helduentzat eta 6 euroan 14 urtez azpikoentzat. Bertan biltzen diren musikariek bazkalostean nahikoa musika eta dantza izango dela hitz eman dute antolatzaileek.

LES INCOGNITOS

Arratsalde-gau parterako beste-lako emanaldi batzuk izango dituzte. Alde Zaharreko kaleetan zehar Les Incognitos taldea ibiliko da: «Frantziatik datoz, aurretik ere izanak dira hemen eta sei taldekideek, reggae, rock eta ska musika egiten dute». Ondoren, 22:30etik aurrera Plaza Berrian izango dira kontzertuak. Tolosan ezaguna den Aldapeko Basque Latin Jazz taldea ariko da alde batetik. eta gauerditik aurrera Laiotz taldearekin erromeria egingo dute.



Musikherria egitasmoa aurkeztu zuten Pizkundera plazan. J.M.

«Egitarau mardula prestatu dugu eta gonbita luzatzen diegu herritarrei emanaldi hauetan parte har dezaten», esan du Iraolak.

Gonbidapen bera luzatu du Izarne Iglesias Tolosako Udaleko Kultura zinegotziak ere: «Tolosak badu berezitasun bat, herriak duen bizitasuna. Astebururo bada zerbait, eta normalta-

sun bere osotasunean berreskuratzen ari garen honetan, maiatza izaten ari da horren adibide». Herriko kaleak musikaz girotzeko eta alaitzeko ospatuko da Musikherria maiatzaren 28an, eta Iglesiasek nabarmendu du, egun horrek Tolosako musikarien eta artisten lana ikusarazi eta haien ekarpena aintzat hartzeko balioko duela.

EGITARAUA

10:00. Tolosako Dultzaineroak, Giro Arte dultzainero taldea eta Incasables txaranga, Larramendi, Amarotz, Izaskun eta San Esteban auzoetan.

11:00. Kalez kale, Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasleak, Hauspotuz elkarteko trikitilariak, Udaberri fanfarrea, Koponezinak txaranga, Isidro Larrañaga musika eskolako ikasleak, Uztaritzeko Herri Soinua elkarte, Laskotxaranga eta Tolosako Abeslari Gazteak.

12:00. Alde Zaharreko kaleetan zehar Tolosa Kantari.

12:00. Plaza Berrian, Lask abesba-

tza, Eduardo Mokoroa udal musika eskolako klarinete taldea, Isidro Larrañaga akordeoi orkestra.

12:00. Hodeiertz abesbatza, Garigabeak, The Konbix eta Garena Lopez Mendizabal plazan.

14:30. Herri bazkaria Zerkausan. Txartelak Xirimiri eta Orbela tabernetan salgai.

18:00. Alde Zaharreko kaleetan zehar Les Incognitos.

22:30. Plaza Berrian Aldapeko Basque Latin Jazz taldearen emanaldia.

00:00. Laiotz taldearekin erromeria Plaza Berrian.

Haragia eta sua bat eginda, Haragi festan

Imanol Garcia Landa

Asteburu guztian zehar ospatu da Haragi Tolosan. Jende ugari batu dute Trianguloan eta Zumarditxikian jarritako *foodtruck* gunee. Trianguloa plazan haragi pintxoak dastatzeko aukera egon da eta bertan hiru gunek izan dira: Txomin Parrilla euskaldunak jarritakoa; Florencia Abella sukaldariaren lan taldearena (Eksdet, Estokolmo); eta Pablo Rivero argentinarrak (Parrilla Don Julio, Buenos Aires) prestatutakoa.

Zumarditxikia guztiz eraldatu da Haragi topaketarako eta Haragi Fest gunea egon da bertan. Hainbat *foodtruck* edo janaria

zerbitzatzen dituzten furgoneta izateaz gain, kontzertuak ere izan dira. Gunearen antolakuntzako kidea den Imanol Perotxenak azaldu duenez, «lehenengo aldian zen gunea hau antolatzen zela. Bagenituen erreferentziak aurreko urteetan zer egin zen, eta eskala batean antolatu dugu, eta izandako jendetzarekin, arrakastatsua izan dela esan dezakegu. Jendea etorri zen, dastatu zuen, musikaz gozatu zuen, eta bai jendea eta bai *foodtruck* hauek kudeatzen dituzte jatetxe, sukaldari eta harakinak oso pozik daude emaitzarekin». Igandean *Haragi* menua eskaini zuten Tolosako erretegitan.



Trianguloan pintxoak dastatzeko aukera egon zen larunbatean eta musika Zumarditxikian igandean. I.G.L./L.C.



DANTZARIEN EGUNA

Ibarrako Alurr Dantza Taldeak bere eguna ospatu zuen larunbatean. Goizean txikiak txanda izan zen eta kalejiran ibili ziren herrian zehar. Gauean gazteek hartu zuten plazan dagoen estalpeko oholtza. R.C.G.



UDABERRIARI GORAZARRE

Udaberri Festa izan zuten larunbatean Gaztelun, eta giro ederra izan zutela esan dute. Pili Otaegik eskainitako sendabelleren ikastaroarekin hasi eta La Jodedera taldearen doinu kubatarrekin amaituko zuten jai eguna. ATARIA



MILA AUKERA, AZOKA BETEAN

Kulturaldiko egitarauaren barnean bederatzigarrenegoz Udaberriko Azoka egin zuten herenegun, Berrobin. Mota askotako artisauro produktuak nahiz jakiak egon ziren bertan eta jendeguri ibili zen postuz postu. L.C.

Herritarrek Kilometroen bueltan

Ibarrak Kilometroen inguruko ekitaldi jendetsuak hartu ditu asteburuan; larunbatean aurtengo kanta entzun ahal izango da



Plazan egin zuten ikasleek egunari amaiera emateko 'flashmob'-a. I.S.A.

Erredakzioa Ibarra

Euskal Herri osoko LH 6ko ia 400 ikasle egin zuten bat ostira-lean Ibarra. Uzturpe ikastola- ren gonbita jaso eta Milimetroak jaia ospatzeko asmoz gerturatu ziren. Apirila amaieran Oleretan ospatu zituzten Milimetroak, eta oraingoan Tolosaldearen txanda izan zen.

Goizean zehar elkar ezagutze-ko aukera izan zuten, hori baitzen helburuetako bat; naziogintza lantzea, eta Euskal Herriko hainbat ikastolako ikasle- en arteko harremana sustatzea. Altxorren Bila jokoa egin zuten gero herrian zehar eta bukatzeko flashmob-a egin zuten plazan.

Milimetroak festarekin batera larunbatean Kantujira egin zuten Kilometroen alde, herriko abesbatzak antolatuta. Eta igandean Orientazio Proba egin zuten, beroari aurre eginez.

Guztira 45 taldek hartu zuten parte Ibarra Bidetxur mendi taldeak antolatu duen II. Orientazio Proba Herrikoian. Talde bakoitza Ibarra inguruko paraje-etan barrena ibili zen mapa baten laguntzarekin, herriko plaza- ra iritsi arte. Bertan, bero zakar- rari aurre egiteko askari txiki bat izan zuten zain, hainbat jaki eta edari freskoekin.

Ekitaldiekin jarraituz larunba- tean ikasle ohien bazkaria egon- go da ikastolan bertan, eta arratsaldean Kilometroetako kanta eta bideoklipa aurkeztuko dituz- te plazan.



45 taldek hartu zuten parte igandeko Orientazio Proban. L.C.

zozketak

Atarikideentzat **dortsal bat** dugu

12. Emakumezkoen Triatloia
300m igerian / 8km bizikletan / 2km korrika

Ekainak 25, larunbata
15:00etan • Donostia

Antolatzailea:
Atletico San Sebastian.

Zozketetan parte hartzeko **osteguneko** 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

KIROL EMAITZAK

Areto futbola		
HIRUGARREN MAILA		
32. jardunaldia		
Mondrate – Laskorain	4–4	
Tolosala – Eskoriatza	2–2	
Sailekapena		
1. Afantxo	74p	
2. Laskorain	64p	
3. Antiguoko	57p	
4. Mondrate	53p	
5. Eskoriatza	53p	
6. Gora	52p	
11. Tolosala	38p	
Hurrengo jardunaldia		
Laskorain (2) – Gora (6)		
Kukuyaga Etxeb. (13) – Tolosala (11)		
GIPUZKOAKO GIZONEZKOEN		
LEHEN MAILA		
Igoera fasea, finalerdia		
TEEP Tolosala	4	
Eguzki Arkupe Rehabilitaciones	5	
Hurrengo jardunaldia, finala		
IDK Pari Berri Donibane		
TEEP Tolosala		
Eskubaloia		
1. LURRALDE TXAPELKETA		
26. jardunaldia (azkena)		
Erenitza Beissier	19	
Tolosa Eskubaloia	17	
Sailekapena		
1. Ereintza Beissier	43p	
2. Leizaran Eskubaloia	42p	
3. Arlan Elgoibar	35p	
4. Urnieta Quel Abogados	33p	
5. Tolosa CF Eskubaloia	32p	
Futbola		
GORENGO MAILA GIZONAK		
Iraupen faseko kopa, finalerdia		
Axular – Danena	2–2	
(Penalti jaurtiketan Axular aurrera)		
Iraupen fasea, azken fasea		
Finalerdia, joanekoa		
Gure Txokoa – Billabona	0–2	
Hurrengo jardunaldia		
Billabona – Gure Txokoa		
LEHEN MAILA ERREGIONALA		
Igoera fasea,		
18. jardunaldia (azkena)		
Lazkao – Intxurre	3–1	
Sailekapena		
1. Elgoibar	40p	
2. Touring	39p	
8. Intxurre	19p	
Saskibaloia		
GIZONEZKOEN 3. MAILA		
Igoera fasea, 3. eta 4. postuak		
Mondragon Unibertsitatea B	69	
Elorri–Aldapa	63	

Rotetak gidatuko du Tolosako gizonezkoen talde nagusia

Futboleko Ohorezko Erregional Mailako entrenatzaile berria da Joseba Roteta; Tolosa bezalako talde eta herri bati ezin zaiola ezezkorik esan azaldu du Rotetak

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosa CF-ko gizonezkoen talde nagusia mailaz jaitsi da denboraldi honetan eta hurrengoan Ohorezko Erregionalean ariko da. Taldearen gidari berria Joseba Roteta oiartzuarra da. Bere azken taldea Beti Gazte izan da, Tolosa CF-rekin batera Hirugarren Maila galdu berri duena. Futbol jokalaria ohia, beste hainbat taldetan izan da ere entrenatzaile, baina Beti Gazte talde lesakarra aurreko denboraldian Hirugarren Mailara igotzea izan da bere lorpenik esanguratsuenak.

Ardura berria «sekulako ilusioarekin» hartzen duela esan du Rotetak. Bukatu den denboraldia Tolosarentzat eta Beti Gazterentzat gogorra izan dela dio. Lesakan jarraitzea zen bere asmoa, baina aukera hau sortu zaiola eta eskertuta dagoela azaldu du. «Inork ezin dio Tolosari ezezkoa eman. Beraz, aprobetxatu eta orain hasiko gara lanean. Hiru hilabete ditugu, eta oraindik gutxi hitz egin dugu jokalariez. Orain ekingo diogu lan horri», esan du oiartzuarrak.

Tolosa beti izan dela Hirugarren Mailako taldea gaineratu du Rotetak: «Sekulako herria da, eta Ohorezko Mailan egon denean beti igotzeko asmoarekin lehiatu da. Nik lehiakortasun hori nahi nuen eta niretzako aukera polita da. Proiektu polita iruditzen zait, eta ahalegin guztiak egingo ditugu hurrengo urtean ahal bada Hirugarren Mailara itzultzeko». Horretarako «talde polit bat» behar dela azaldu du, eta hori izango dela bere lehenengo lana. Klubetik esan diote helburua taldea etxeko jendearekin osatzea



Oier Arruebarrena eta Joseba Roteta, Berazubiko futbol zelaian. I.G.L.

«Gero maila ona ematen duten bat, bi edo hiru jokalaria kanpotik ekartzeko aukera bada, pentsatuko dela azaldu didate. Hasiera batean garbi utzi zidaten taldea etxeko jokalariekin osatzea dela asmoa, eta oso ondo iruditzen zait».

<<HERRIKO PROIEKTU SENDOA>> Entrenatzaile berriaren aurkezpenearekin batera, Oier Arruebarrena Errendimenduko koordinatzailea ere aurkeztu du Tolosa CF-k. Bere lehen lana entrena-

tzaile berria kontratatzea izan da, eta izen bat baino lehenago, profil bat bilatzeari eman diote garrantzia. «Profila kontuan hartuta izen batzuk agertu zitzaizkigun, kontaktu batzuk egin genituen eta azkenean Joseba aukeratu genuen», esan du Arruebarrenak. Klubaren ideia herriko talde bat egitea zela komentatu zioten Rotetari. «Bere meritu handienetako bat Beti Gazte, herriko talde bat, Hirugarren Mailara igotzea izan zen. Ikusten genuen guk eskaini dezakegun proiektua nahiko antzekoa dela, eta horregatik aukeratu genuen», zehaztu du Arruebarrenak.

Datorren denboraldian talde nagusia Hirugarren Mailari igotzea da helburua. «Baina ez dugu egingo drama bat ez bagara igotzen. Hainbat urtetara begirako proiektu bat osatu nahi dugu, berriz herriko proiektu sendo bat egin, eta behin igotzen garenean mantentzea izango da gure helburu nagusia», esan du Errendimenduko koordinatzaileak. Zentzu horretan, Rotetaren kontratazioak epe luzerako izan nahi duela gaineratu du.

San Joan Sarian, etxeko bi igerilari lehen zortzietan

Erredakzioa Tolosa

Tolosalde IKT taldeak antolatuta, igeriketako XLIV. Tolosako San Joan Saria izan zen jokoan larunbat goizean Usabal igerilekuan. Ehun igerilarik parte hartu zuten, Gipuzkoako hamabi taldetatik, eta puntu gehien lortu zituzten lehen zortzi igerilariek diru saria eskuratu zuten. Horien artean Tolosaldea IKTko bi igerilari izan ziren: Nahia Garridok laugarren egin zuen eta Enaitz Goñik zortzigarren. Beste sei saridunak Bidasoa taldekoak izan ziren: 1. Maialen Rohrbach, 2. Amaia Zendoia, 3. Ainhoa



San Joan Sariko zortzi lehen igerilariak. MARKEL SAN JOSE

Martin, 5. Ion Mujika, 6. Juncal Cuñado eta 7. Asier Iguñiz.

Tolosalde IKTko Nerea Pagola entrenatzaileak dioenez, «gure taldekoak oso ondo aritu ziren. Gutxienekoak lortu ziren Euskadiko Txapelketarako, zein Espainiako Txapelketarako. Ekainean ditugu txapelketa garrantzitsuak eta uztaietan are garrantzitsuagoak, baina dagoeneko marka politak ikusten hasi gara».

UNDERWATER PRESTAKUNTZA Larunbat arratsaldean, berriz, Underwater prestakuntza saioa egin zuten Usabal igerilekuan, Espainiako Federazioaren eskutik, eta Euskadiko Federazioak antolatuta. Santi Veiga teknikaria eta Aschwin Wildeboer igerilari ohiak eman zuten prestakuntza. Saioan 30 igerilari inguru eta beste hogeitabat entrenatzaile izan ziren.

Oihana Kortazar eta Asier Larruzea izan dira azkarrenak

Txindokiko Kilometro Bertikalean, Kortazarren atzetik Ainara Urrutia eta Maud Combarieu sailkatu dira, eta Larruzearen ondoren, Mikel Beunza eta Ricardo Cherta

I. Garcia Landa Abaltzisketa

Txindokiko Kilometro Bertikala izan zen jokoan larunbatean. Erlojuaren aurkako proba izan zen, eta guztira 186 korrikalarik parte hartu zuten, horietatik 26 emakumezkoak. Oihana Kortazar mutrikuarra izan zen azkarrena emakumezkoetan, 44.05eko denborarekin. Ainara Urrutia aretxabaletarrak egin zuen bigarren denbora onena (45.41) eta Maud Combarieu urruñarra izan zen hirugarren (47.43). Leire Agirrezabala ibartarra izan zen eskualdeko lehena (47.43), laugarren postua lortuz.

Asier Larruzea gueñestarrak egin zuen gizonezkoetan denbora onena, 35.59rekin, eta ondorengo azkarrenak Mikel Beunza alkozterra (36.25) eta Alcalá de Xiverte Ricardo Cherta (36.46) izan ziren. Eskualdeko azkarrena Jokin Tolosa anoetarra izan zen (39.44), seigarren postua eskuratuz.

Junior eta jubenil mailan ba-

karrik gizonezkoek parte hartu dute. Juniorretan, Aitor Ugarte aramaioarra (38.00) izan zen lehenengoa, Gaizka Lasa legorretarra (43.47) bigarren eta Mikel Gonzalez durangarra (46.36) hirugarren. Jubenil mailan, Ibai Angulo azpeitiarra (42.14) izan zen azkarrena, Julen Bereziartua alegiarra (47.36) bigarren, eta Ander OiARBIDE segurarra (58.13) hirugarren.

Antolakuntza taldeko Igone Campos gustura azaldu da lasterketa nola joan den ikusita: «Oso pozik gaude lasterketa ater den moduan, lehenengo aldiz antolatzen gurela kontuan izanik. Asko eskertu digute lasterketa antolatzeagatik, eta ikusi dugu jendea pozik ibili dela. Baldintzak ere nahiko onak izan dira, nahiz eta bero pixka bat egin duen, baina dirudienetz tontorrean haize pixka bat egin du, eta korrikalariak eskertu dute».

Datorren urtean berriro antolatzeke animoz daudela gaineratu du Camposek: «Korrikalariak

SAILKAPENAK


EMAKUMEZKOAK

1. Oihana Kortazar	44.05
2. Ainara Urrutia	45.41
3. Maud Combarieu	47.43

GIZONEZKOAK

1. Asier Larruzea	35.59
2. Mikel Beunza	36.25
3. Ricardo Cherta	36.46

gustura ibili dira eta boluntarioen aldetik sekulako laguntza izan dugu. Datorren urtean berriro laguntzera etorriko direla esan dute, beraz, lantalde honekin datorren urtean aurrera egingo dugula uste dugu». Bestalde, korrikalariak animatzen egon zen jende kopurua nabarmendu du: «Jende mordo bat etorri da. Are gehiago, proba bertikalean normalean jende gutxiago izaten da, eta jende asko harrituta zegoen zenbat zale izan diren ikusita. Eta guretzako, aurrera begira, babes izugarria da hori».



Goitik hasita, Oihana Kortazar, probaren unea batean; emakumezkoen podiuma eta gizonezkoen podiuma. I.G.L./IGONE CAMPOS



329 MENDIZALEK HARTU DUTE PARTE TXIRRITA MARTXAN

Txirrita Mendi Ibilaldiko hamargarren edizioa egin zuten igandean, Oargi Mendi Elkartek antolatuta. 201 lagun izan ziren ibilbide luzea egitera animatu zirenak, eta motza, berriz, 128 lagunek egin zuten. Ibilbide luzean, 40 kilometrokoa, Amezketako Bixente Aterpetik hasi eta Artubi, Aldaon, Soldabizkargaina, Ttutture, Beloki, Putterri, Igaratza, Pardarri, Ganbo, Ganbo Txiki eta Txindoki igaro behar izan zituzten. Ibilbide motzean 22 kilometro egin behar izan zituzten, Minak, Igaratza, Ganbo edota Txindokitik pasata. LEYRE CARRASCO

Parte hartzeko deitu **943 09 06 08** telefono zenbakira edo sartu **Ataria.eus** webgunean • Parte hartu aste honetako asteartetik osteguneko 11:00ak arte. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.